

# Irailaren 1ean NAN+PIN identifikazio-sistema iraugiko da

Cl@ve-k ordezkaturko du, segurtasuna areagotu eta estatuko beste administrazio batzuekin izapideak egiteko aukera ematen baitu

## Asteartea, 2021ko Abuztuaren 24a

Datorren irailaren 1ean NAN+PIN identifikazio-sistema iraugiko da, eta Cl@ve sistemak ordezkaturko du. Sistema horrek segurtasuna areagotuko du, Estatuko, tokiko eta autonomia-erkidegoko beste administrazio batzuekin izapideak egiteko aukera eman, eta herritarren datuen babesa hobetuko du.

Identifikazio-sistema berri horrek sarbide bakarrarekin aukera ematen du, ondorengo izapide hauek egiteko: hitzorduak eta COVID txertaketa-ziurtagiriak kudeatzea, erroldan laneko ziurtagiriak eta baimenak edo altak lortzea, PFEZa eta Ogasunarekiko beste izapide batzuk kudeatzea, edo laguntzak eta bekak eskuratzea, besteak beste, itxaronaldiak eta aurretiko hitzorduak saihestuz.

Urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako Gobernuaren zerbitzu telematiko askok aukera ematen dute Cl@ve bidez sarbidea identifikatzeko. Gainera, Foru Administrazioak kanpaina bat egin zuen sistema horretan erregistroa sustatzeko, eta horrek eragina izan du herritarrengan; izan ere, Nafarroako Gobernuak Cl@ve erabiliz Interneten dituen zerbitzuetarako sarbideak % 260 hazi dira: 27.875 lehen hiru hilabeteetan, eta 100.353 bigarrean.

Cl@ve lortzeko lehen urratsa sistemaren online **erregistratzea** da, ziurtagiri digitala izanez gero, edo **erregistro-bulegoetan** aurrez aurre, ziurtagiririk ez badago. Ziurtagiririk ez duenak eta bulegoetara joan nahi ez duenak **gonbidapen-gutun** bat eska diezaioke Zerga Agentziari Internet bidez edo **bideo-dei** bidez, telefono mugikor edo ordenagailu batekin, kamera, mikrofono eta bozgorailuekin.

Erregistro kudeaketak errazteko eta zalantzak argitzeko, Nafarroako Gobernuak herritarren eskura **webgune** hau jarri du. Bestalde, prozedura hori herritar guztiei gerturatzeko, Foru Administrazioaren 28 bulego gaitu dira guztira, estatuko 13 bulegoekin eta udaletako 3 bulegoekin batera. Guztira, Cl@ve-ko 44 erregistro-bulego daude Foru Komunitate osoan.